



Urtarrilak 16

17:00 – 20:00

Santa Klara

Kulturtegia.

Bilera-gela (2.

solairua)

Casilda

Iturrizar, 10.

48920 Portugalete

Dinamiza

Airí Ferrer

Diseinuan (Elisava

& Southamptoneko

Unibertsitatea)

eta Enpresa

Jasangarritasunare

n Kudeaketan

(Cambridge

Institute for

Sustainability

Leadership)

lizentziaduna da.

Hogei urtez

modaren industrian

egin du lan

hainbat arlotan,

hala nola

diseinuan eta

talde-ekoizpen

eta kudeaketan

Europar eta Asian.

Izan ere, hantxe

bizi eta lan egin

zuen 6 urtez.

2018an Bilbora

joan zen bizitzera

eta gaur egun moda

jasangarriko

aholkulari gisa

dihardu. 2021etik

Fashion Revolution

Euskadi

mugimenduaren

koordinatzailea da

helburua delarik
euskaral herritararak
kontzientziaztea
eta inplikatztea
industria
jasangarriago eta
errespetuzkoago
bat lortzeko
bidean.

Helduentzako,
gazteentzako,
adituentzako eta
zaleentzako
hitzaldi eta
mintegi
espezializatuetan
parte hartu ohi
du, batetik,
ehungintzari
eragiten dioten
arazoez jendeari
kontzientzia
harrarazteko eta,
bestetik,
jasangarritasunare
n eta kontsumo
arduratsuen
aldeko
aldaketarako
tresnak emateko
ere bai.

Deskribapena

Hitzaldia:

Ingurumen-inpaktua
ehungintzaren
ekoizpen-katean (1
ordu).

Ehungintzaren
ekoizpen-kateko
ingurumen-inpaktua
z hitz egingo
dugu, lehen
fasetik
(lehengaia)
azkenengora
(janzkiaren
hondarrak).

Halaber,
kontsumitzaile
gisa ahalik eta
aztarnarik gutxien
sortzeko, zer egin
dezakegun eta zein
fasetan landuko
dugu.

Lantegia:

Gure
etxeetan
sortzen
ditugun
ehun-hond
akinen
inguruko
sormen-la
ntegia (2
ordu).
Etxean
ditugun
ehun-hond
akinak
nola
aprobetxa
tu
ikasiko
dugu, *upcycling*
bezalako
sormen-tekniken
bidez.
Diseinatutako
teknika honek
birziklatutako
materialak
produktu berri
bihurtzen ditu.

Helburuak

Helburu behinena
da modaren
ingurumen- eta
gizarte-inpaktuari
buruzko
informazioa ematea

askotan ezezaguna
baita. Hartara,
gure arropa
erosteko eta
zaintzeko
erabakiak
hartzerakoan beste
modu batean jardun
ahalko gara. Gure
erabaki
guzti-guztiek
badute garrantzia.
Gainera, ikasleek
etxean
erreplikatzeko
errazak diren
sormen-teknikak
ikasiko dituzte
lantegian,
ehun-hondakin
horiek guztiak
aprobetxatuta
edukiontzian
amaitu ez dezaten.

Metodologia

Hitzaldiaren
kontzeptuak
ikasiko ditugu,
diapositibetan eta
azterlan-kasuetan
oinarrituta.
Lantegirako,
josteko makinekin
eta josteko
elementuekin lan
egingo dugu
artisau-erara.
Elkarrekin ikasiko
dugu soberan
dauden jantziak
edo oihalak nola
berreskuratu eta
nola sortu
produktu berri
bat.

Parte hartzeko

baldintzak

Portugaleteko
gizarte-erakundeet
ako kideek izango
dute lehentasuna.
Tailerra doan da
ikasleentzat.
Portugaleteko
Udalak hartuko du
bere gain gastua.

[INSKRIPZIOA](#)